



Bolungarai

etxebizitza

Aldacrak:

Ahokoak: Bolúngarai / Bolóngarai



43° 11' 34"

2° 36' 15"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... la casería rústica titulada Bolungaray...situada en la barriada de Sarria jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que comprende con inclusión de su antusano tres mil setecientos treinta y un pies equivalentes a doscientos noventa metros veinte y tres centímetros de cabida, y la que se comprende de piso llano con zaguan, cocina y cuadras, de piso principal, con sala y pajar..."

DJE, 2/160 or. (1868)

Bizitza bakarreko baserri honen inguruko lehen aztarnak 1666koa da, *Bolungaray* (BAHP, A419/32.), hain zuzen ere, eta bertan, Sarria aldeko baserri bati erreferentzia egiten zaio. XVIII. mendeko Bizkaiko su-erroldetan ere jasotzen da baserri hau: *Bolungarri* izenez 1704koan, *Volungaray* 1745ekoan eta *Bolungaray* 1796koan. Azken era hori mantenduko da XIX. eta XX. mendean zehar. Auzotarren artean, ahozko erabilpenari erreparatuta, *Bolún-garai* eta *Bolóngarai* formak aurkitzen ditugu.

Berritutako etxe zaharra, zeharo aldatutakoa 1994. urtean obrak egin zituztenean, zurezko atarteak, teilatu-hegal zabala eta horri eusteko

aldamenetako besoak baino ez zituztelako gorde. Nahiz eta alboan eraikina handitzen den, etxearen fatxada nagusia teiltatuko gailurraren inguruan antolatu zen, horrek egiten baitu simetria-ardatz lana, oso ondo lortutako efektuari esker. Antolamendua sinplea da: jatorrizko atea, alde batean, eta leiho bi, ondoan; goiko pisuetan, balkoi luze batek bi baoak lotzen ditu. Fatxadak zarpiatuta eta zuriz pintatuta daude, eta harria erabili zuten kantaletan eta baoen ertzetan. Armarri berria du, eta inskripzio batetik dio: *"BOLUNGARAI" / DUÑABEITIA TA IRAETAK / 1994AN BERRIZTATUA.*

toponimia

Mendebaldeko Euskal Herrian errota deitzen dugun eraikuntza lehenago bolu edo boli, deitzen den eta nonahi ikus dezakegu hitz honekin osatutako toponimoak: Bolibar, Bolueta, Bolunburu... Hitz biek, errota eta bolu, latin jatorria dute. Latineko rota hitzetik errota sortu zen euskaraz eta rueda gaztelaniaz. Modu berean latineko molinum-etik gaztelaniazko molino eta euskarazko bolu sortu ziren. Antzina hitz honek -n- zuen, bolinu, baina euskaraz zenbait hitzetan bokalen artean ageri zen -n- soinu hori galdu egiten zen. Hori gertatzen zen bai leku izenetan (Otxandio, Zestoa...), bai euskarazko hitzetan (ardoa, gazta) baita latinetik hartutakoetan ere (katea eta kanpai latineko catena eta campanatik). Baina hitz konposatueta berrirori ageri da -n- hori eta horregatik esaten da katenbegi, kanpandorre, ardandegi eta gaztanbera. Boluren kasuan ere horregatik ageri da hemen edo Bolunburu izenean n hori. Beraz "Errota garai" esango genuke gaur Bolungarai-ren ordez.